

4083

**AGINDUA**, 1994ko urriaren 21ekoa, Kultura sailburuaren, Zurbanoko Otalora-Gebra Jauregi-Etxea Kultura Ondare gisa Monumentu izendapenaz Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorean sartzen duena.

Zurbanoko Otalora-Gebra Jauregiaren balio historiko-arkitektonikoa eta kultura aldetik duen interesa ikusita eta erabilgarri den lege-arautegia kontuan hartuz, hots, konstituzioa (149. atalaren 1. zenbakia, 28. lerroaldia eta 149.aren 3. zenbakia), Autonomia Estatutoa (10. atalaren 19. zenbakia) eta uztailaren 3ko 7/1990 Legea bera aintzat hartuta, Kultura sailburuordeak, 1992ko martxoaren 18an, ondasun hori Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorean sartzeko expedienteari hasiera ematea erabaki zuen.

Aipatutako expedientea administrazio-biderik izapi-detu ahal izateko, gai horri buruzko txostena egitea eskatu zitzaison Euskadiko Arkitektura Ondare Monumentalaren Aholku Batzordeari eta, era berean, aipatutako 7/1990 Legearen 11. ataleko hirugarren lerroaldian eta gai honi buruzko gainerako arauetan ezarritakoari jarraituz, jende guztiak expedientearen berri izan zezan, hurren buruzko informazio publikoa ere eman zen.

Euskadiko Arkitektura Ondare Monumentalaren Aholku Batzordea, 1991ko ekainaren Sean, proposatutako izendapena ematearen alde azaldu zen.

Orain arte adierazitako guztia kontuan hartuta, aipatutako legearen atalak ezarritakoari jarraituta, Kultura sailburuordeak proposatura eta Euskadiko Arkitektura Ondare Monumentalaren Aholku Batzordeak egindako txostena ikusirik,

#### ERABAKI DUT:

*Lehena.*— Zurbanoko Otalora-Gebra Jauregia Kultura Ondare gisa Monumentu izendapenaz Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorean sartzea.

*Bigarrena.*— Aipatutako Ondareari buruzko deskribapenari ekitea I. eraskinean azaltzen den moduan eta II. eraskinean zehaztutako mugak errespetatuz.

*Hirugarrena.*— Otalora-Gebra Jauregia Euskal Kultura Ondareari dagokion Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorean sartzeko eskaria egitea.

*Laugarrena.*— Jabego-Erroldan agindu honen berri ematea, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen 26. atala bete ahal izan dezaten.

*Bostgarrena.*— Otalora-Gebra Jauregiaren jabeei, baita Arrazua-Ubarrundiako Udalerri eta Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailari ere, agindu honen berri ematea.

*Seigarren.*— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritza-

4083

ORDEN de 21 de octubre de 1994, del Consejero de Cultura, por la que se inscribe el Palacio Otalora-Guevara de Zurbano como Bien Cultural, con la categoría de Monumento en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

El 18 de marzo de 1992 el Viceconsejero de Cultura a la vista del interés cultural del Palacio Otalora-Guevara de Zurbano fundamentado en su valor histórico-arquitectónico y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, que se extiende desde la misma Constitución (artículos 149 n.º 1 párrafo 28 y 149 n.º 3), el Estatuto de Autonomía (artículo 10 n.º 19) y la propia Ley 7/1990 de 3 de julio, resolvió incoar en la misma fecha expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco, con arreglo a la Ley de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó de conformidad a lo previsto en el párrafo tercero del artículo once de la mencionada Ley 7/1990 y demás disposiciones concordantes la solicitud de informe al Consejo Asesor de Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi así como al sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública.

Con fecha 5 de junio de 1991 el Consejo Asesor de Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi informa favorablemente la inscripción propuesta.

Es por todo lo que antecede, y a tenor de lo establecido por el artículo de la mencionada Ley, a propuesta del Viceconsejero de Cultura, visto el informe del Consejo Asesor de Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi,

#### RESUELVO:

*Primero.*— Incluir el Palacio Otalora-Guevara de Zurbano como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

*Segundo.*— Proceder a la descripción formal del mencionado Bien en los términos expresados en el Anexo I y conforme a la delimitación que se indica en el Anexo II.

*Tercero.*— Instar la inscripción del Palacio Otalora-Guevara en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco adscrito al Centro de Patrimonio Cultural Vasco.

*Cuarto.*— Comunicar la presente Orden al Registro de la Propiedad, a fin de posibilitar la aplicación del artículo 26 de la Ley de Patrimonio Cultural Vasco.

*Quinto.*— Notificar la presente Orden a los propietarios del Palacio Otalora-Guevara, así como al Ayuntamiento de Arrazua-Ubarrundia y al Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Álava.

*Sexto.*— Publicar la presente Orden en el Boletín Ofi-

ren Aldizkarian argitaratzea, orohar jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 1994ko urriak 21.

Kultura sailburua,  
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

**I. ERASKINA.** Kultura sailburuaren 1994ko urriaren 21eko Aginduari dagokiona. Otalora-Gebara Jauregia Kultura Ondare gisa Monumentu izendapenaz Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorean sartzen da agindu horretan.

#### OTALORA-GEBARA JAUREGIA

Arrazua-Ubarrundia

Eraikin soila, Zurbano (Arrazua-Ubarrundia) herrian dago, «erdiko auzoa» deritzonaren Iparraldean. Baserri inguruko etxegintzan, jauntxoentzako arkitekturan aurki daitekeen ezaugarri bikaina dugu XVII. mendeko eraikin hau. Lehendabiziko barroko-aldeko baserri-jurregi gaztelarraren ereduari jarraitzen dio, bertan «Herrero»ren ondoko garaiko soiltasuna nabari dela.

Jauregia egitura nagusi batez osatua dago. Bere oinarria errektangularra da eta modu honestara eratuta dago: beheko solairua, lehen solairua eta teilatu azpiko ganbara, azken honek kanpoko alderako leihorik ez duela. Alde báñatan, dorre bana, pisu batekoak eta, beraz, egitura nagusia materialak: paretetan, harlangaitza eta, ate-leihoa ingurueta, izkineta, imposteta eta erlaizean, harri landua. Zurez egindako lan ederrak ikus daitezke atean eta balkoietako barandetan, baita burdinazkoak ere balkoietako barandetan. Teilkak arabiar motakoak dira.

Aurreko aldea da interesgarriena eta, bertan, oreka ezinhobia dago leihotarako hutsuneen banaketan. Banoak ardatzen bidez antolaturik daude: hiru egitura nagusian eta, bana, dorretan. Egitura nagusiaaren erdiko ardatza era honestara dago antolatuta: dinteldun atea, dintela erlaiz estu batez babestuta dagoela eta, ataburua eta ate-zangoak, molduraz dekoratutak; Otalora-Gebara ratarren armaría, buruko kasketaz tinbratua eta lanbrekinez eta kardinaz dekoratua. Ardatz honen inguruuan daude antolaturik gainerakoak, simetria erabat gordeaz, kanporantz ateratako balkoiak solairu nagusian eta antepetxatuak dorreen goiko solairuan.

Atzeko aldeak sartaldera jotzen du eta etxeari atxikitako beste eraikin bat du. Bertan, ate adintelatua eta tamaina ezberdinak leihoka ditugu.

Iparraldera jotzen duen aldea da itxieta eta, Hegaldetako, berriz, ordenatuagoa da.

Burruko aldean, ateondo zabala du beheko solairuan eta saloi handi bat solairu nagusian.

Kanpoko aldean, sarrera nagusia aurrean harresian dago harri biribilez dekoratua. Harresiaren sarrera puntu erdiko arkua dugu, hau ere, harri-bolaz edertua.

cial del País Vasco para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de octubre de 1994.

El Consejero de Cultura,  
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

**ANEXO I a la Orden de 21 de octubre de 1994, del Consejero de Cultura, por la que se inscribe el Palacio Otalora-Guevara de Zurbano como Bien Cultural, con la categoría de Monumento en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.**

#### PALACIO OTALORA-GUEVARA

Arrazua-Ubarrundia

Edificio exento ubicado en el extremo Norte del llamado «barrio medio» de la localidad de Zurbano (Arrazua-Ubarrundia). Notable ejemplar de arquitectura señorial de carácter rural que data del siglo XVII. Pertenece a la tipología propia de palacio rural castellano del primer barroco, en el que se perva la sobriedad posherreriana.

Palacio compuesto por un cuerpo central, de planta rectangular que consta de planta baja, primera y sobrado bajo cubierta sin luces a la fachada, al que flanquean dos torres que sobresalen ligeramente de la línea de fachada del cuerpo central. Las torres tienen una altura más. Los materiales de construcción son: mampostería para fondo de muros y sillería en cercos de vanos, esquiniales, impostas y cornisa. Se aprecian buenos trabajos de madera en puerta y cierres de balcones, y de hierro en las barandillas de los balcones. La tejería es de tipo árabe.

La fachada principal es la más interesante y en ella se observa un perfecto equilibrio en la disposición de vacíos y llenos. Los vanos se organizan formando ejes, tres en el cuerpo central y uno en cada una de las torres. El eje central del núcleo principal se compone de portada adintelada cuyo dintel va protegido por una estrecha cornisa y cuyas jambas y parte interior del dintel están decoradas con molduras; y blasón, con el escudo de los Otalora-Guevara, timbrado con yelmo y decorado con lambrequines y cardinas. En torno a este eje se disponen los demás, perfectamente simétricos, con balcones volados en la planta noble y antepechados en la planta superior de las torres.


La fachada posterior, orientada al Oeste, presenta un edificio auxiliar adosado, una portada adintelada y ventanas de distinto tamaño.

La fachada lateral Norte es la más cerrada mientras que la fachada lateral Sur es bastante más ordenada.

En el interior destaca amplio zaguán en la planta baja y gran salón en la planta noble.

El espacio exterior a la fachada principal se encuentra cercado con pretil de piedra decorado con bolas y acceso en arco de medio punto, igualmente, con motivo de bolas.

## II. ERASKINA / ANEXO II



Euskal Kultur Ondarearen Zentrua

Kultura Saria  
Eusko Jaurlaritza

Centro de Patrimonio Cultural Vasco

Departamento de Cultura  
Gobierno VascoLurraldea / Territorio:  
**ARABA**Udalerría / Municipio:  
**ARRAZUA-UBARRUNDIA**Planoa / Plano:  
**OTALORA-GEBARA JAUREGUIA.**  
Mugapen planoa.  
**PALACIO OTALORA-GUEVARA.**  
Plano delimitación.Data / Fecha: **AZAROA-92**Escala / Escala: **1:1000**

Plano zk. / Plano nº: